



## Elgezuko San Kristobal basiliza (Igorre)

Igorreko hirigunetik bi kilometro baino zertxobait gehiago eginda, eta Santa Luzia auzunerako bidea hartuta, malda erdian dagoen zelaigune batean dago, eguzki-leku ederrean eta bailarara begira, herriak Elgezuko San Kristobal Baseliza izenez ezagutzen duten eraikina. Auzuneari izena ematen dion santuarekin batera dugu San Kristobal basiliza honen titular, eta zantzu guztiek aditzera ematen dutenaren arabera, Santa Luzia bera izan zen hasierako garaietan, Goiz Erdi Aroan, tenpluari ere izena eman ziona.

Auzune honek gaur egun beste gune batzuetatik urrun egonagatik ere, lehenagoko garaietan ez zen horrela gertatzen, izan ere, basiliza honetatik hurbil igarotzen baitzen bailararen sakona saihestuta, mugakide den Biteriño (Dima) auzoarekin bat egiten zuen bide bat, bertatik Arabarantz jarraitzeko.

Eta garai hartakoak dira, gutxi gorabehera (VIII-X. mendeak) gaur eguneko basilizaren hegoaldera aurkitu zituzten hilobiak. Hogeita hamar bat hilobi induskatu dira nekropoli horretan, eta bata bestearekiko paralelo ziren ilaratan zegoen antolatuta. Lurrean zulatutako hobi soilek, oso sakonak ez zirenek eta trapezio erako oin-planodunek, bizpahiru harlauzek estalita, osatzen zuten hilerria, penintsulako iparraldeko nekropoli gehienetako tipologia ohikoaren arabera. Hildakoa zuzenean uzten zuten lurrean, inolako ostilamendurik gabe, eta burua ekialdera begira.

Ez dago, lehendabiziko garai horri dagokionean, kronologia hori aplikatu dakioken bestelako elementurik, oso baxuerliebe eskematikoa duen harlauza zati bat izan ezik. Harri horretan tamaina ezberdineko bi pertsona daude irudikatuta, eta tradizioz, Ama Birjina eta Umea direla esan izan da; atarira iristeko eskaileratxoan atzera erabili zen hilarri bat ere badago, eta inskripzio bat zeukan, baina hamarkadak igaro dira ezabatuta dagoenetik. Dena den, erabilitako formulari esker, XI. mendeko data ezar dakiok.

Handik mende gutxi batzuetara ekin zieten jatorrizko tenpluaren handiagotze lanei edo, gutxienez, eraldaketa garrantzizko bat egiteko. Esku hartze hartatik, ordea, hegoaldeko alboan berriro aprobetxatu zen sarbideak besterik ez du iraun. Janben gaineko inposten gainean pausatzen den puntudun arku da. Janbon gainean eta itxidura arkuan daude aplikatuta apaingarri gisa jarritako elementu bakarrak: eta horri gehi diezaiokegu inpostak zeharkatuz, bai janben barneko ertzetan eta bai arkuarenetan berarenetan barrena ere doan zilindro erako moldura lodia. Ezaguri horiek guztiak aztertuta, estilo erromanikoaren azken fasean koka dezakegu, XIII. mendearen erdialderantz.

Ez zuen, baina, tenplu hark mende bi eta erdiz baino luzaroago iraun zutik, izan ere, XV. mendearen amaieran eraitsi egin baitzuten, aldaketak aldaketa, gaurdaino bertan izan den beste tenplu handiago bat altxatzeko.

Errektangelu erako oin-planoa eta hiru alderdidun burualde poligonalak dauzka (17,50 x 12,00 m gutxi gorabehera), eta erabat zarpeatuta dagoen harri-hormaz eginda daude murrak, barruko aldean karez zurituta eta izkinetan, berriz, silarrien bidez sendotuta. Honelako eraikinetan ohikoa izaten denez, sekula ere ez zuen gangadun estalkirik izan, eta gaur egun bertan ikus daitezkeen hori azken berritze-lanen emaitza da, eta aurrekoaren ordez jarri zuten, taulatxo eginiko sabai ordokiaz. Pareko ilaren bidez eginiko armazoiaren sistema erabili da, pendoloiekin, tiranteekin eta jabloiekin, bi sasi-tarte

eratzuz, hormara erantsita dauden oin artezen gainean pausatuta; Isurialde triangeluarrek, berriz, murraren gainean hartzen dute oinarri, burukoa aldean berorrek daukan tankera poligonalari egokitzen zaizkiolarik.

Burualde horretako hormetan eta altuera erdian daude egur polikromatuek eginda dauden San Kristobalen, Kristo Gurutzatuaren eta Santa Luziaren tailak, egurrezko xafle inguratuta, eta aldarearena eta aldarearen alboetako pulpitu gisakoena egiten duten monolitoen modura, auzuneko artisauek eginikoak dira.

Baselizaren oinetara altxatzen da egurrezkoa den eta kareleko oholetan giltza-aho irudiak dauzkan korua. 1600. urtearen inguruan kalkula daiteke, dauzkan apaingarri batzuegatik, koruaren eraikitze-data, nahiz eta bi zutabe toskanarrak eta azpian dauzkan harrizko mentsulak geroagoko kronologia batekoak direlarik, jatorrizko euskarrien ordez jarrita daudela den pentsatzekoa.

Koruaren azpian eta erdiraturik irekitzen da basilizako sarrera nagusia, eraikinaren gainontzeko atalei egokitzen zaiena, puntu eta dobeladun arku zabal batekin. Fatxada nagusiaren errematea eginez, hutsune bakarreko kanpai-horma, Jesusen Bihotz Sakratuaren irudiak errematea emanda.

Tenpluaren kanpoko aldearen inguruan atari ederra dago, sakristiaren bolumen txikiak beste ezerk inbaditzen ez duena. Azkeneko eraberritzean, eskolarena egin zuen gorputz atxikia kendu ez ezik, pausatzen zeneko oin artezen ordez, gaur egun bertan daudenak jarri ere egin dira, eta lehenagoko haiek baino sendotxoagoak dira, izan ere antzinako estalkian zeuden habeak berrerrabili egin baitziren zeregin horretarako.

Auzune bateko basiliza izanagatik ere, eliztarren ardurari eta ahaleginei esker, artapen baldintza ezin hobetan iraun daitekeelako adibide argia ematen digu San Kristobal basiliza honek.

**Testua:** Alfonso de Andrés.



**Elgezuko San Kristobal basiliza**  
Igorre. (Santa Luzia auzunean).

### Nola heldu:

Igorreko erdigunetik hartu behar da Dimarako bidea eta berehala, ezkerretara doan beste bide bat, Santa Luziarantz. Bi kilometro egindakoan ailegatuko gara basilizara.

### Bisituen ordutegia:

Barrura sartzeko atea normalean itxita egoten denez, beharrezkoa da harremanetan jartzea Igorreko parrokoarekin barruko aldea ikusi nahi izanez gero.

### Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Elgetzu, Dima)

- Zurigana baserria.

(Dima)

- Errukiaren basiliza.
- Hilerria.

(Indusi, Dima)

- Zamakolako errota.
- "Errotazar" zentral Hidroelektrikoa.

